# Asteartera arte

**Txillardegi**

HORRA hor Vascongadetan egun hauetan entzun den adio-mota. Egia esan, agindu bati buruzko solasak entzun dira eta agindua erdaraz etorri da: «mardi 25 est la date limite pour le passage de l'ikastola dans le secteur "public" ou le secteur "privé"». Epea eta modua PNV-PSOEren arteko "akordio politikoa"ren ondorioak dira. Alor horretan bereziki jakituna ez izanik ere, nabarmen agertzen zaizkit puntu batzu:

1 - Sare "publiko" famatu hori, sare *espainola* dela. Ikastolei ez zaie inolaz ere sare publiko euskaldunean sartzea proposatu, ezta sare iberiko edo nik dakita *nolako sare abstraktoan sartzerik eskaini*; Madrilek zuzentzen duen irakaskuntza-sare *espainolera* biltzea baizik. «Le petit détail», esan ohi da...

2 - Ikastoletan *eskola "pribatu" mordo bat* besterik ez somatzea, euskaldunoi adarra jotzea da. Ezer baldin badago herri honetan herritarrik eta "publikorik", ikastolak dira, hain zuzen. Frankismo betean herri xehearen abertzaletasunari esker, eta anitz laguntza xumeri esker eraikia (eta ez Madrileri edo multinazionalei esker), nekez sala daiteke mogimendu horretan `"pribatu"rik ezer.

Baina, PNV-PSOE ezkontza lotsagarria dela-ta, ikastolari betiko amua bota zaio, "Pribatutasuna" (?) hautatuz gero, diruarazo mordo bat hartu behar bizkarrean: eta, horretaz, eskuindarkeria, elizkeria, burgeskeria, klasekeria eta gainerako "keria" guztiak jasan behar. "Publikotasuna" (?) hautatuz gero, berriz, Madriletik etorriko diren LOAPA, LOGSE, "harmonisation régionale", "égalisation autonomique", "nivellement nord-cantabrique", eta abar, irentsi behar. Hitz batez: espainiarkuntza segurua onartu behar. Betidaniko «sans préjudice de l'unité constitutionnelle espagnole».

«Soluzio» hori PSOEk proposatzea, normala da. Partidu abertzale batek hori proposatzea, ezina. Hortaz, *PNVa*

> *PNVa ez da alderdi abertzalea, alderdi espainola eta espainolista baizik*

*ez da alderdi abertzalea*, alderdi *espainola eta espainolista* baizik. Hona hemen gure belaunari tokatu zaion «révision déchirante» delakoa. PNVa ez da abertzalea. PNVaren jokabideak betiko eskema alienatura eraman gaitu: Euskal Herrian "progre" izateko, klasismoetatik ihes egiteko, *espainola* izan behar da; eta euskalduna izateko, aldiz, *ordaindu* egin behar da solidaritasun falta hori; geure burua dirudunen eskuetan, eskuinaren eskuetan jarriz.

Nork sinets ote dezake oraindik, ordea, Bandres eta Onaindia salduen bidetik, *euskal* irakaskuntzaren soluzioa *Espainia*tik etor daitekeenik? Nola sinets ote dezake inork gure nazio-hizkuntzaren geroa Buesaren eskuetan jartzea bidezkoa denik? Baina, besterik ere badago. Orain arte batua zen ikastolen mogimendua Euskal Herri osoan barrena. Orain, berriz, PNV-PSOEren akordioaren ondorioz, zertan gelditu dira Nafarroako eta Iparraldeko ikastolak?

Pozoina, gainera, ausarki zabaldu da irakasleen artean; eztabaida-aste hauetan non-nahi etsaigoak, haserreak eta gorroto ezabagaitzak sortuz. Pozoina zabaldu da, era berean, gurasoen artean, euskaltzaleen artean, auzokideen artean, adiskide minen artean. Abilki emana izan da labankada ikastolen bihotzean bertan. Xanpaña edan dezakete lasai Buesak eta gainerakoek. Orrialde beltz ezin kiratsagoa idatzi dute betiko etsaiek eta gaurko inkante-kideek. Orrialde lotsagarria, buruquideok!

Orain dela urte batzu ikastoletan «Epainiarekiko gorrotoa» irakasten zela zioten fatxek. Orain, PNVaren laguntzaz, «garbitua» dago bekatua. «L'ikastola est morte» idatziko omen dute batzokietan, Arana-Goiriren fotoaren ordez Buesa-renak erantsiz. Ikastolen zatiketak, txikiaketak, eta xehakuntza sistematiko honek hori eta gehiago merezi du. Franco-k berak ez zuen horrenbeste espero.

## Saucisson de Bayonne !

SUR le moment on pense à dépeçage mais le mot est fort et comme il s'agit d'une humeur déclenchée par la lecture du *Guide des restaurants du Pays Basque 1992-1993*, saucissonnage fera l'affaire.

Rappel : Sous la coupe d'administrations et d'Etats différents, Euskal Herria ou Pays Basque se compose de:

• la communauté autonome d'Euskadi, noyau dur, ventre mou;

• de Nafarroa qui pour une large part a été et demeure euskaldun et dont le cavalier seul, tacitement encouragé, arrange bien des gens du côté de la Moncloa et de Matignon;

• d'Iparralde composé, ce que chacun sait, de Xibero que l'on retrouve généralement dans le binôme du «Béarn et de la Soule» —au simple énoncé on aura compris—; de Lapurdi et de Baxe-Nafarroa, sous-préfecture Baiona.

Cette réalité (triste) nous la connaissons, alors à quoi bon ressasser? Eh bien, si l'on en croit le guide en question, il existerait une nouvelle entité délimitée par l'autoroute Baiona-Hendaia et appelée Côte Basque nettement différenciée du Labourd, puisque faisant l'objet d'un traitement distinct. Ce n'est pas la première fois que l'on observe ce phénomène mais lorsque l'on saura que ce document a été réalisé par la chambre de commerce et d'industrie de Baiona-Pays Basque, on ne pourra que s'étonner mais aussi s'indigner, quand bien même ne s'agirait-il que d'un modeste guide culinaire, une fois encore de la liberté avec laquelle on récupère, transforme et manipule. Cette cuisine a des relents suspects. Trop c'est trop car il convient de ne pas sous-estimer et donc de dénoncer ces découpages apparemment innocents qui ne font qu'ajouter à la confusion par ailleurs savamment orchestrée.

**Arnotegi.**

## Histoire d'une bavure

■ *Depuis bientôt trente ans, militaires, policiers et juges refusent ou égarent toutes les preuves de la "bavure" des services secrets français, "bavure" qui a causé la mort de Jean-Claude Saint-Aubin et de son amie, sur la route de leurs vacances. «Les gouvernements passent, les secrets d'Etat se perpétuent, ils sautent par-dessus les clivages politiques», démontre Denis Langlois qui a reconstitué, avec sa ténacité et son courage habituels, tous les témoignages volontairement négligés par les autorités politiques et militaires successives. «L'affaire Saint-Aubin est devenue symbolique du mépris dans lequel l'Etat tient trop souvent les citoyens et tout simplement les êtres humains (...). Le citoyen... a-t-il le devoir de se taire quand la raison supérieure a parlé?».*

✳ *Le mystère Saint-Aubin par Denis Langlois. Editions Flammarion (193 pages, 85F).*

## Concert basco-argentin

■ Les amis du regretté accordéoniste Kornelio, qui durant des décennies a animé nos fêtes et nos repas de noces, organisent un superbe concert d'accordéon, samedi 29 mai à 21 h 15, en l'église d'Azkaine. L'affiche est séduisante avec en première partie deux des meilleurs accordéonistes d'Euskal Herri, Jesus Aured, premier prix au concours international d'Annecy, et Iñaki Dieguez, premier prix du conservatoire de Donosti. Raul Barboza, accordéoniste argentin de renommée internationale, descendant des indiens guaranis, spécialiste du "chamamé", musique spécifique de la province de Corrientes, limitrophe du Brésil et du Paraguay, arrive à Azkaine précédé de très flatteuses critiques de la presse parisienne. Cette soirée est coréalisée par la mairie d'Azkaine et Euskal kultur erakundea, l'Institut culturel basque.

## Offres d'emploi

✳ L'association Hemen recherche un objecteur de conscience. S'adresser au siège : résidence Alliance, centre Jorlis 64600 Anglet, tél.59.52.40.30.

✳ Mauleko "Pitxu" batzokiak CES kontratü gisako animazale bat txerkatzen dü. Bere lana izanen da animazioneen koordinaketa, günearen joanaraztea eta beste alkarteekin harremanen jarraikia. Iparraldeko alkarteen eta eüskal kültür mündüaren ezagütza beharrezkoa da, bai eta ere eüskararen menperatzea. Lana, üztailaren 1etik aitzina hasiko da. Helbide hontarat maiatzaren 30a beno lehen idatz ezazü : Pitxu batzokia, 6

## La torture sous la... République

■ *Une malencontreuse coquille est venue couper net le titre du fameux livre de l'historien Pierre Vidal Naquet dont sont extraites les citations qui figurent dans le dossier «Torture» de notre précédent numéro.*

*Ouvrage publié à l'étranger en 1963, il s'agit d'un dossier accablant sur une des périodes les plus noires de la démocratie française, la guerre d'Algérie, 1954-1962 (éditions La Découverte/Maspero)*

## SUR VOTRE AGENDA

- **vendredi 28 mai, 21h, HAZPARNEn** (Eihartzea) conférence «Femmes, violence au quotidien», organisée par Emazteen elkartea.
- **maiatzeko 29an, 21 1/2etan, HAZPARNEn** *(batzokian) «marmitako gaua».*
- **samedi 29 mai, 12h, ATHARRATZEn** (Sü azia) vernissage de l'exposition sur les villas et jardins de Biarritz.
- **maiatzaren 30an MAKEAn**, kermeza eguna.
- **dimanche 30 mai, 17h, PARISEn** (Eskual etxea) «musiques et chants traditionnels *du Pays Basque» avec Ganbara taldea.*
- **dimanche 30 mai KANBOn** «chanson: prix concours de la jeune création basque», sous l'égide d'Euskal kultur erakundea.
- **dimanche 30 mai, dès 9h, ANGELUn** (stade des Girouettes-Aritxague) «Tournée de Sixte» organisée par Ibaialde et Angeluarrak elkarteak *(boisson, taloa et xistorrak assurés par* l'ikastola).
- **dimanche 30 mai, 9 1/2h, HENDAIAn** (domaine d'Abbadia, Larre etxea) visite commentée du domaine. Tél. 59.20.37.20.
- **lundi 31 mai, dès 11h, ARRANGOITZEn** «Eskola elebidunen besta» avec Peio Serbielle en vedette (17 1/2h) et partie de pelote à main nue *Panpi Laduche-Daniel Borda / Xan* Urdanpilleta-Ph. Bideondo (19 1/2h), organisé par Ikas Bi.

...tre couverture: Cartes des langues minorisées en Europe sur fond d'hémicycle de Strasbourg. Entre parenthèses, estimation du nombre de locuteurs.